



Zaharberitzearen arazoetako bat harlanduetako luzituak berreskuratzea izan zen. Jatorriz erabilitako mortairua kare eta hareazkoa, Ezkioko Pagua baserrikoa zen. Berau erreproduzitzeko kare hidrauliko naturala erabili zen, harea horiz eta berako arbel harria joz lortutako agregakin fin batez masa eginda, mantendutako luzituak zehazki imitatzeko asmoz. Kare-mortairu hori gogortzeko asmoz, bizkortzaileak eta iragazkaizgarriak gehitu zitzaizkion, denborak aurrera egin ahala, lur antza emanez.



Erabilitako egur gehiena haritza da oholetako zenbait gaztainondo pieza izan ezik. Haritzak eskuadra hobek eskaintzen dituzenez, egiturako pieza gehienak zuhaitz mota horretakoak dira. Nahigabeak ekiditeko erabilitako haritzak gutxienez bi mende dituzte. Haritzak ospea izan arren oso egur traidorea da hezea denean bihurritu eta okertu egiten delako.

Haranetako gune altuetan dauden haritzek hondoetan daudenak baino egur trinkoagoa sortzen dute. 20 x 30eko pieza bateko lagina eraman nuen eta 324 hazte eraztun zenbatu nituen, oso egur trinkoetaz hitzegiten ari gara.

Neurketa hau dendrokronologiari esker egin daiteke, zuhaitz zein zurezko landareetako hazte eraztunen datazioetaz arduratzen den zientziari esker.

Igartubeitin hartutako erabaki asko hipotesien emaitza dira. Zirien sistema Ezkioko Saleten baserriko bera da. Hogei dolare baino gehiago ikusi genituen oso gauza txikiei buruz ondorioak ateratzeko, hala nola, sostengu elementua osatzen dituzten piezak matxinbratuak edo solte zeuden.

Oso lan motela izan zen eztabaida handia pizten zuelako, goiz osoa eztabaidatzen igarotzen genuen, bazkal orduan paperezko mantela ipintzeko eskatzen genuen eta bertan marrazten genuen eztabaida. Manu Izagirre ondare teknikariak mantelak eramaten zituen, Aldundiko tokiren batean egongo diren mantel horietan marrazki bilduma izugarria egon behar du.

## **Erdi Aroko etxolagunea**

XI-XII. mendeetako etxola batetaz hitzegiten ari gara, egia esan ez dakigu eskualde hau noiz populatu zen. Izan ere gaur egungo hipotesi nagusia da nekazaritza eta kristautasuna aldi berean iritsi zirela.

Etxolagunea sukaldearen azpian egoten jarraitzen du polietileno xaflaz, zerrautsez eta areaz babestua adituen aholkuak jarraituz.

## **XVI. mendea, Gipuzkoan aberastasun eta itxaropen unea**

Bi mende eta erdiko guda odoltsuaren ondoren, ahaide nagusien porrotarekin, bat-batean biziki nahi izandako bakea lortu zen. Bestalde, Ameriketako aurkikuntzarekin itsasoz bestaldeko merkataritza antzeman zen. Honi kaparetasun unibertsala gehitu behar zaio, gipuzkoarrek estatutu juridiko modernoarekin gozatzen zuten, askeak ziren, beraien patuaren eta beraien ondasunen jabe ziren. XVI. mendeari Gipuzkoan sekula ere berriro ezagutu ez dugun argiaren pean eman zitzaion hasiera, itxaropen unea izan zen.

### **Dolare baserria**

Dolare baserriak oso erraz antzematen dira gailur bikoitza dutelako, berniek horretara behartzen baitute.

Euskal Herriko habe dolareen ezaugarrietako bat lehen pisuan daudela da eta ez dakigu hori zergaitik den. Dolarea lurrian finkatuta egon balitz habe izugarri guzti horiek soberan zeuden. Dolare baserria era berean eraikuntza aberatsa eta ameslaria da, oso tramankulu dibertigarria da. Hori dela eta, bistan denez, lau baserriarrek ezin zuten horrelako baserria eraiki. Igartubeitin maisutasuna dago eta gehiago esango nuke oraindik, gaur egun arkitektoek burutzen dugunaren oso gaineratik dagoen eraikuntz zientzia bat dago.

Dolareko habea lortzeko Lapurdira joan behar izan genuen, haritzezko enborra aukeratzera, ireki egin zen, nagusiena kendu eta Miranda de Ebrora eraman zen bi urtez bertan lehortzera.



## **XVII. mendeko handitzea**

Igartubeiti moldatu egiten den baserria da, nekazari eta produktuak biltzeko beharrak asetzeko handitu egiten da. Eraikuntza aldaketekin egur egitura hasierakoaren antzekoa izaten jarraitzen du. Halere aldaketa nabarmen bat badago, meritu handia duen oholen kalitatea, hain zuzen. Egurraren itxitura iragazgaitz samarra lortzeko egurra erauzi behar da eta horretarako deabruaren gaitasuna behar da. Oholak gazta formakoak dira, punta eta ipurdi batekin. Ipurdian zirrikitu bat ireki eta hurrengo oholaren punta sartzen zaio eta horrela egiten zituzten garaiko zoladurak.